

Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuena
Bazkun
Ohoretsua

Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya



DOAKO JUSTIZIARI BURUZKO 110/2012 DEKRETUA



¿IMAGINAS QUÉ
HARÁS CON EL
60%
QUE TE AHORRAS
CUANDO COMPRAS
NUESTROS
EBOOKS?



Librería Virtual EL DERECHO

La respuesta a todas tus preguntas

Contenidos actualizados con las últimas reformas legales

Contenidos disponibles inmediatamente

Autores de prestigio como los de nuestra colección Tribunal Supremo

Abierto las 24 horas, los 365 días del año



EL DERECHO

www.elderecho.com/publicaciones

Joa den irailaren 1ean, doako justiziaren eta ofizioko txandaren funtzionamenduari buruzko dekretu polemikoa jarri zen indarrean. Dekretua Eusko Jaurlaritzaren eta autonomia-erki-degoko abokatuen elkargoen artean hainbat urtez liskarrean ibili ondoren argitaratu da. Urte hauetan, abokatuok, gure ordezkarien bidez, Justizia Saileko arduradunei –arau-aldaketaren kudeatzailerak– jakinarazi diegu ez gaudela ados dekretuarekin, ez delako batere argia, garapen-arazoak planteatzen dituelako eta abokatu-entzaintzaren kalte egiten diolako; izan ere, gizarteari eskainitako zerbitzuarengatik lehen baino gutxiago kobratuko dugu. Baina gure alegazioak, kexak eta iradokizunak ez dira kontuan hartu, eta entzun ere ez dituzte egin.

Gutziz agintzailea eta inozoa da urte askotan zeregin hori garatzen garenen ez entzutea. Zerbitzu publikoa izan arren partikular kualifikatuek garatzen dugu zerbitzu hori, eta Administrazioako kideak ez garen arren, gure denboraren zati handi bat ofizioko txandari eskaintzen diegu. Horren truke konpentsazio ekonomiko eskasa jasotzen dugu, batzuetan barregarria, gure zerbitzuek merkatuan duten prezioa kontuan hartuta.

Herritarren aurrean egia ezkutatu da eta komunikabideetan esan da dekretu honek ofizioko txandaren funtzionamendua hobetuko duela, epaituaren mesedetan. Hori esatea ez da oso etikoa eta gezurra da gainera, herritarrengan ez duelako inolako eraginik, izapide burokratiko gehiago egin behar dituela kenduta.

Hala ere, guztia ez da alferrikakoa. Dekretu honen bidez lortu da –horretan ahalegindu dira gainera– abokatuak kalte egitea. Izan ere, gure zerbitzuen ordainketa murriztuko digute –dekretu honen helburu nagusia– eta doako laguntza-eskaeren izapidetzari denbora asko eskaini beharko diegu. Gaiak horren ardura zerbitzua finantzatzen duten bitarteko ekonomiko publikoak kudeatzen dituen erakunde publikoari egokitu beharko litzaioke.

Dekretu bat egiten dutenak Administrazioako kideak dira. Herri subiranotasuna egikarituta lortu duten botere publikoa gauzatzen dute, eta botere publiko hori modu egokian administratzeko konfiantza eman zaie.

Abokatuok, dekretu hau argitaratu eta indarrean jarri ondoren, gobernuan dauden batzuen gaitasunik eta talenturik ezaren ondorioak jasan-go ditugu zuzenean, eta epaituaren zuzeneko solaskideak izango gara eta gure jarrera eta gure egonezina azaldu beharko dizkiogu.

Horregatik, gizarterako garrantzi handiko gaia arautzen duen dekretuaren aurrean kritika irmo eta zintzoa egiteko eskubidea dugu. Urte asko behar izan dituzte dekretu hau garatzeko, eta azkenean, hilabete baliogabea iristear zegoela kaleratu da -agian norbaitek pentsatuko du nahita eginda dagoela-, eta irailaren 1ean jarri da indarrean. Hori dela eta, protestak atzeratu egin dira eta, gainera, idazketa eraginkorra ez denez, ez da erraza behar den moduan ulertu eta aplikatzea.

Dekretu honek legegintza-kalitate urria eta hizkuntza-zorroztasun urria ditu. Hori dela eta, ez du zerbitzua hobetzen, arazoak eta atsekabea eragiten ditu, epaitua zorabiatzen du eta abokatuak babesik gabe uzten ditu. Hala ere, abokatuok, gure lanbidearen atalik duinena eskaintzen jarraituko dugu, zorroztasunez eta gizarte-konpromisoz gauzatuko baitugu, beharizanik handiena dutenen zerbitzura.

El pasado 1 de Septiembre entro en vigor un polémico decreto sobre el funcionamiento del beneficio de la justicia gratuita y el Turno de Oficio que ha sido publicado tras años de desencuentros entre el Gobierno Vasco y los Colegios de Abogados de la Comunidad. Durante estos años los abogados, a través de nuestros representantes, hemos notificado a las responsables de la Consejería de Justicia -gestoras de la reforma normativa- nuestros profundos desacuerdos con esta por su falta de claridad, por las dificultades de desarrollo que plantea y por el menoscabo de la dignidad de los abogados que cobraremos menos que antes por nuestro servicio a la sociedad. Todo ello, sin que muchas de nuestras alegaciones, quejas o sugerencias hayan sido reflejadas.

Resulta sobradamente prepotente, al tiempo que estulto, negarse a escuchar a quienes llevamos años desarrollando esta función. A quienes, por cierto, somos protagonistas de la prestación de un servicio que -siendo público- es desarrollado por particulares cualificados que, no siendo miembros de la Administración, dedicamos una gran parte de nuestro tiempo al ejercicio de la abogacía por turno de oficio y recibiendo a cambio una escasa compensación económica que resulta, en ocasiones, ridícula si se compara con los precios de mercado de nuestros servicios.

Disfrazar la verdad ante la ciudadanía comentando en medios de comunicación que este decreto mejorará el funcionamiento del turno de oficio, redundando en beneficio del justiciable es poco ético y falso, puesto que no afecta de ninguna manera al ciudadano exceptuando el hecho de que le obliga a realizar más trámites burocráticos.

No obstante no todo es inútil. Lo que sí consigue este Decreto -y podría parecer que hasta han puesto empeño en ello- es perjudicar a los abogados, que veremos reducido el abono de nuestros servicios -objetivo principal de este dislate normativo- y que deberemos dedicar demasiado tiempo a la tramitación de solicitudes de asistencia gratuita, asumiendo la sobrecarga de una labor que debería corresponder a la entidad pública gestora de los recursos económicos públicos que financian el servicio.

Quienes elaboran un Decreto forman parte de la Administración. Desarrollan un poder público que les ha sido conferido mediante el ejercicio de la soberanía popular, siendo depositarios de la confianza que se les ha otorgado para su correcta administración.

Los abogados, tras la publicación y entrada en vigor de este Decreto sufriremos, directamente, las consecuencias de la falta de capacidad y talento de algunos de aquellos que nos gobiernan y también seremos interlocutores directos del justiciable, a quien deberemos explicar nuestra postura y nuestro malestar.

Por ello tenemos derecho a ejercer una firme, sana y noble crítica a un Decreto que regula un tema de gran importancia para la sociedad. Un Decreto que han tardado años en desarrollar y que, finalmente, se ha publicado -quizá alguien piense que deliberadamente- cuando se aproximaba la llegada del mes inhábil, y ha entrado en vigor el 1 de Septiembre, hecho que aplaza las protestas y unido a su ineficaz redacción, imposibilita su acertada comprensión y aplicación

Un Decreto de escasa calidad legislativa y mínimo rigor lingüístico que no mejora el servicio, genera problemas y descontento, aturde al justiciable y desampara a los abogados quienes, a pesar de todo, y pese a quien pese, seguiremos brillando en la parte más digna de nuestra profesión al ejercerla con rigor y compromiso social al servicio de los más desfavorecidos.



**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**
**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**

Decano / Dekanoa
Nazario Oleaga Páramo

Consejo de Redacción / Erredakzio Batzordea
Ana Bermejo Arteagabeitia
Beatriz Barquín Torre
Ignacio Alonso de Errasti

Colaboradores / Laguntzaileak
César Gallastegi Aranzabal
Garazi Arraibi Larrea
Jorge Marqueta Andrés
Eduardo Ranedo Fernández
Idoia Manzarraga Zamalloa
Alberto Martínez Ruiz

Fotografía / Argazkigintza
E. Moreno Esquivel

<http://www.icasv-bilbao.com/>
elboletin@icasv-bilbao.com

Depósito Legal / Legezko gordailua
2.069/1987

Asegura sus sueños

25
años



Ser abogada

20
años



Viaje fin de curso

15
años



Clases de inglés

10
años



Ordenador

5
años



Bicicleta



Haz mutualista a los más jóvenes de la familia.

Abre un plan **JUNIOR** y conseguirás hacer realidad sus sueños

- Rentabiliza al máximo sus ahorros
- Un Plan a medida de los más jóvenes
- Ahorro y protección en un sólo Plan
- Con la solvencia de la Mutualidad

Infórmate en el **902 25 50 50** o entra en www.mutualidadabogacia.com

2012ko abuztua-iraila
agosto-septiembre 2012

06

BERRIAK

08

INFORMAZIOA

Dohako Justiziaren Dekretua:
desadostazun luze eta sakonaren
kronika

Doako Laguntza Juridikoko
Dekretuaren aplikazio praktikoa

14

JARDUNALDIAK

Europa gotorlekua: politikak, ondorioak
eta babes mekanismoak

18

BAZKUNeko LIBURUTEGIA

20

LEGEGINTZA BERRITASUNAK

22


KULTUR ERANSKINA




08



12



11



22



24



25

OSASUN-LAGUNTZAREN ONARADUNENEI BURUZKO INFORMAZIOA

A) MUTUALITATEAREN ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ARTEAN OSASUN-LAGUNTZARI BURUZKO HITZARMEAN ALTAN DAUDENAK

Abuztuaren 3ko 1119/2012 Errege Dekretuak aseguru eta onuradun izaera arautzen du Espainiako osasun-laguntzaren ondoreetarako funts publikoen kargura, Osasun Sistema Nazionalaren bidez. Dekretu horrek bere egunean Abokatutzaren Mutualitatearen eta Gizarte Segurantzaren artean osasun-laguntzari buruz Bazkunak kudeatuta sinatutako hitzarmenean altan emanda dauden kide guztien egoera (zurea ere bai) alda dezake. Hitzarmen horren arabera, osasun-laguntza estalita zenuen hilero kopuru bat ordainduta (gaur egun, 88,01 €).

Dekretu berriaren arabera, laguntza hori doakoa izango da betekizun hauek betetzen dituzten gutzientzat:

- Espainiako naziotasuna izatea eta Espainiako lurraldean bizitzea.

- Europar Batasuneko estatu kideren bateko naziokoak, Europako esparru ekonomikokoak, Suitzakoak izatea eta Atzerritarren Erregistro Nagusian inskribatuta egotea.

- Aurreko herrialde batekoak ez izatea edo aberrigabeak izatea, baina Espainiako lurraldean bizitzeko indarreko baimena izatea.

- Urtean 100.000€-tik gorako sarrerak ez izatea eta beste bide batetik osasun-prestazioaren nahitaezko estaldurarik ez izatea.

Aurrekoa kontuan hartuta, betekizun horiek betetzen badituzu, bide horretatik aseguru izaera aitortzeko izapideak hasi aurretik, hitzarmenean baja eman beharko duzu, eta ondoren, eta berehala, eskubidearen eskaera izapidetu beharko duzu modu indibidualen GSINen, xede horretarako dagoen eredu erabiliz. Aurretiko zita eskatu behar duzu, bide hauetakoren bat erabiliz:

• Telefonoz: 944 284 556 (08:45etik 14:00etara)

• Internet bidez:

<https://www.sede.seg-social.gob.es>

• Posta elektronikoz: citaprevia.bizkaia@inss.seg-social.es

• Aurrez aurre: Bizkaiko GSINen edozein bulegotan:

Hitzarmenean baja eman nahi baduzu, Bazkunari jakinarazi behar diozu al-bait arinen, irailaren 14a baino lehen, bestela irailari dagokion ordainagiria igorriko zaizu eta. Horretarako, mezu honi erantzun ahal diozu, idatziz eska dezakezu edo fax bat bidal dezakezu. (94.435.62.01).

Baja eskatzen ez baduzu, eta izapidetzen ez den bitartean, hitzarmenari lotuta jarraituko duzu eta hilero dagozkion ordainagiriak igortzen jarraituko dugu.

b.- MUTUALITATEAREN ETA GS-REN ARTEKO HITZARMENEAN ALTAN EZ DAUDENAK

Abuztuaren 3ko 1119/2012 Errege Dekretuak (BOE, 2012ko abuztuaren 4a) aseguru eta onuradun izaera arautu du, hain zuzen ere, Espainiako osasun-laguntzaren ondoreetarako eta funts publikoen kargura, Osasun Sistema Nazionalaren bidez. Errege Dekretu horren 2.1/b artikulua dela bide, abokatuok eta beste kolektibo batzuek azkenean Espainian osasun-laguntzarako eskubidea izan dezakegu, betekizun hauek betetzen baditugu:

a) Espainiako naziotasuna izatea eta Espainiako lurraldean bizitzea

b) Europar Batasuneko estatu kideren bateko naziokoak, Europako esparru ekonomikokoak, Suitzakoak izatea edo Atzerritarren Erregistro Nagusian inskribatuta egotea.

c) Aurreko herrialde batekoak ez izatea edo aberrigabeak izatea, baina Espainiako lurraldean bizitzeko indarreko baimena izatea.

d) Urtean 100.000€-tik gorako diru sarrerak ez izatea.

Eman behar diren pausoak:

1º) GSINeko Probintzia Zuzendaritzara (Kale Nagusia, 89) edo Zuzendaritzaren bulegoren batera joatea. Bertan gure nortasun agiria erakutsi eta

Osasun Sistema Nazionalean altan emateko nahia dugula adieraziko dugu.

2º) Funtzionarioek dokumentu bat betetzeko eskatuko digute, gure datu pertsonalak adieraziz, eta horretan, zinpeko aitortzen bidez, adieraziko dugu gure gaur egungo errenta maila 100.000€-tik beherakoa dela, Espainiako naziotasuna dugula eta Espainiako lurraldean bizi garela. Ez da PFE-Zen aitortzen edo bestelako agiririk behar.

3º) GSINeko bulegoak osasun laguntzarako eskubidea egiaztatzen duen dokumentua emango du berehala.

4º) Dokumentu horrekin, zuon etxetik hurbilen dagoen osasun zentroko anbulatiora joan behar da medikua esleitzea eta txartela ematea eskatzeko.

5º) Osasun Zentroak hiru dokumentu eskatzen ditu:

- NANaren kopia
- Familiako kide guztien erroldatzearen jatorrizko agiria
- Osasun-laguntza jasotzeko eskubidea egiaztatzen duen GSINen dokumentua

6º) Osasun zentroak osasun txartelaren behin-behineko frogagiria emango digu berehala, medikua esleituko digu eta gutxi gorabehera hilabete 1eko epean behin betiko txartela emango digu

7º) Txartel horrekin eragozpen bat dago: Europara bagoaz, urtebeteko epean hiru hileko estaldura soilik daukagu eta, adibidez, "Erasmus-en" dauden seme-alabek Europako medikuntza-laguntza urtean 3 hila-betez soilik izango dute estalita.

Aldi baterako eragozpen hori gorabehera, poztu egiten gara arauketa berri honekin abokatutzak aspalditik egindako aldarrikapenei erantzuna eman zaielako. Hala ere, lorpena ez da erabatekoa izan, bide horretan ez baitira sartu urtean ehun mila eurotik gorako diru sarrerak dituzten kideak.

BAZKUNEKO ZERRENDAK BERRITZEA: KONKURTSO ADMINISTRATZAILEAK ETA KONTULARI BANATZAILEAK

2013. urterako konkurtsu-administratzaileen eta kontulari-banatzailen zerrendak berrituko direnez, aurretik izena eman ez eta zerrenda horietan egon nahi dutenek Bazkuneko bulegoetan jakinarazi beharko dute, zerrenda bakoitzeko idazki bat igorritz, aurtengo azaroaren 30a baino lehen.

Hona hemen zerrendetan egon ahal izateko betekizunak: konkurtsu-administratzaileen kasuan, bost urtez lanbidean jardunean egotea, eta kontulari-banatzailen kasuan, bi urte baino gehiago jardunean edo bat baino gehiago Praktika Juridikoko Eskolaren diploma edukiz gero.

KULTURA BATZORDEAREN HURRENGO EKITALDIAK

Lehenik eta behin, Abokatuen Bazkuneko Irakurketa Klubaren berri eman nahi dizuegu, "Lunes de Lectura" izeneko ekimenaren bidez hasiko dena. Lehenengo saioa urriaren 22an izango da, egoitzaren hirugarren solairuan (ordua oraindik ez dago zehaztuta) eta "TARDE CON JARDIEL" izeneko a egingo da, Enrique Jardiel Poncelaren "El Amor del Gato y del Perro" lanarekin eta beste testu batzuekin. (Ekimen berria denez, ahalik eta publizitate gehien egin behar da, izan ere, tertulia bat antolatuta nahi dugu).

Bigarrenik, THE BREAKDOWNS talde ingelesaren emanaldia izango dugu irailaren 19an, Bazkunaren ekitaldi aretoan, arratsaldeko zortzietan.

Hirugarrenik, MARC JEFFREY abeslariaren kantaldia izango dugu, hain zuzen, urriaren 19an, arratsaldeko zortzietan, Bazkunaren ekitaldi aretoan.

Azkenik, THE MASTERSONS bikote amerikarraren saioa izango dugu, azaroaren 13an, arratsaldeko zortzietan, Bazkunaren ekitaldi aretoan.

Nos hemos unido a un equipo en el que confiamos más de 315.000 personas.

Iker Martínez
y Xabi Fernández
Medalla de Oro JJOO
Atenas 2004 y
Plata Beijing 2008
Regatistas de BAT Basque Team



gana en salud con la mayor red sanitaria

IMQ Abogados

Todo lo que le pides a un seguro médico

- Sin esperas, completa cobertura sanitaria para ti y los tuyos
- Tecnología médica de vanguardia
- Centros propios y las principales clínicas privadas de Euskadi
- Libre elección entre más de 35.000 profesionales
- Prestigiosos centros a nivel nacional
- Sin copagos (excepto psicoterapia)
- Seguro de accidentes para el titular de la póliza, desde sólo 5,13 €/mes*.
- Descuentos por forma de pago y por número de beneficiarios
- Importantes ventajas fiscales

* Es necesaria la contratación del seguro de accidentes para el titular de la póliza.

Exclusivo abogados desde 42,98 €/persona/mes

Oferta exclusiva para nuevos clientes miembros de los Colegios de Abogados del País Vasco, cónyuges e hijos, menores de 65 años. Consultar coberturas con franquicia. Ver condiciones generales de las pólizas. Precios 2012. R.P.S.: 69/06

IMQ, Aseguradora Médica Oficial de **basque team**



Medicina de vanguardia

902 311 902
agencia@imq.es
www.imq.es

IMQ

Tu seguro médico

DOAKO JUSTIZIAREN DEKRETUA: DESADOSTASUN LUZE ETA SAKONAREN KRONIKA

Joan den uztailaren 6an, Doako Justiziari buruzko Dekretu polemikoa argitaratu zen. Dekretu horrek ofizioko txanda eta doako laguntza juridikoa kudeatzeko modua aldatu du.

Kudeaketa eredu berria Eusko Jaurlaritzako dagokion sailak diseinatu eta argitaratu du, Bizkaiko Abokatuen Bazkunak Gobernu Batzordeko kideen bidez 3 urtez aurkeztutako gomendio, iradokizun, alegazio eta kexak alde batera utzita.

Prozesua 2009an hasi zen, Jose Manuel Fínez Eusko Jaurlaritzako Justizia sailburuordea zela. Sail horretan dekretu kaotikoa egin zen, kontraesanek beteak, eta horren bidez, Gobernuak ofizioko txandaren kudeaketa erabat kontrolatu nahi zuen. Txanda horretan profesional independenteek lan egiten dugu, gu ez gara administrazioko funtzionarioak, eta, beraz, ez gaude administrazioko hierarkiaren mende. Modu horretan, elkargo profesionalen eginkizuna mugatu nahi zen, eta txandako zerrendaren kudeatzaile huts bihurtu nahi ziren, baina gainera, OJZren zama ekonomikoei eta giza baliabideei aurre egin beharko zieten.

Hala ere, zerbitzua ulertzeko moduari buruz desadostasun sakonak zeuden arren, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailarekin zeuden harremanak onak ziren, eta horren erakusgarri da Txema Finezen zoritxarreko heriotza baino egun bat lehenago akordioa lortu zela Eusko Jaurlaritzaren eta Bazkunaren artean Atzerritarren Laguntza Juridikorako Zerbitzua sortzeko. Zerbitzua gure Bazkunak azkar eta modu eraginkorrean antolatu zuen, Eusko Jaurlaritzak eskaera egin eta gero.

M^a Victoria Cinto andrea Justizia sailburuorde izendatzean, negoziazio, kontsulta eta akordio guztiak erabat oztopatu ziren, sailburuordeak gai hori ez baitzuen eza gutzen eta gure Bazkunarena legazioen eta kexen aurrean guztiz harrিতa baitzegoen. Bere esanetan, bera kargura iristean negoziazio fasean zeuden gai guztiak etenda zeuden eta, beraz, ez zen inolako bilerarik egin behar. Horren aurrean, Dekretua oso azkar sinatu eta argitaratu nahi izan zuen, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako Abokatuen Elkargoei eta Legelarien Euskal Kontseiluari entzun gabe.

2011ko udaren amaieran beste dekretu proposamen baten berri izan genuen. Horren aurrean, Legelarien Euskal Kontseiluak alegazioen 45 orri aurkeztu zituen, eta horietan idazketa alternatiboaren proposamenak egiten ziren, azkenean argitaratu den proiektuaren gabezia materialak eta funtsari lotutako gabeziak gainditzeko. Alegazioen artean, baztertu egiten zen Eusko Jaurlaritzak kudeaketa sistema erabat kontrolatzea, ez baita Eusko Jaurlaritzaren eskumena, zerbitzuaren prestazioa profesional inde-



pendenteen kolektiboari esleitu baitzaio, eta zerbitzuen kudeaketa entitate baten bidez egiten baita, gu guztiok osatzen dugun abokatuen bazkunaren bidez hain zuzen, Horrez gain, zerbitzu hori gardentasun eta eraginkortasun osoz eskaini dugu beti. Era berean, Euskal Kontseiluak ez zuen nahi espedientearen izapidetza herritarrentzat zein abokatuarentzat zailtzen duen sistema ezartzea, ez baitu bermatzen landutako gai guztiak abokatuei ordainduko zaizkienik.

Alegazio horiek eta beste batzuek ez zuten erantzunik izan.

2011ko udazkenean, Euskal Autonomia Erkidegoko abokatuen bazkunak Alderdi Popularreko, EAJko eta Eusko Alkartasunako Parlamentuko taldeekin harremanetan jarri ziren, eta osotasun-zuzenketa bat proposatu zuten. Eusko Jaurlaritzari eskubidearen izapidetza gelditzeko eskatu zioten, abokatuen elkargoekin akordioa lortu arte. Parlamentuan hainbat interpelazio egin ziren, eta lehen-dakariari eskatu zitzaion bere iritzia eman zezala dekretua abokatuekin akordioa lortu gabe argitaratzeari buruz.

Urte bereko urriaren 17an Eusko Legebiltzarraren transakzio-zuzenketa bat garatu zen eta talde sozialistak ere sinatu zuen. Horretan Gobernuari eskatu zitzaion abokatuekin elkarrizketak jarrai zitzala akordio bat lortu arte.

Baina ez zuten kasurik egin.

2011ko abenduan, M^a Victoria Cinto komunikabideetan legelariei leporatu zigun gure ordainsariak kobratzeak soilik kezkatzen zigula eta ez zerbitzua herritarrei emateak. Horren ostean, Eusko Jaurlaritzak abokatuen elkargoei deialdia egin zien ondoz ondoko asteetan 4 bilera egiteko, erreakzionatzeko edo prestatzeko denborarik eman gabe. Bilera bi baino ez ziren egin, eta horietara Cinto andrea ez zen joan. Lehenengo bileran gure bazkuneko ordezkariak dekretuaren testu berria eman zitzaion, aztertzeko edo ezagutzeko aukerarik eman gabe. Beraz, dokumentua jaso ondoren, bilera amaitutzat eman zen, dokumentua aztertu ahal izateko.

Bigarren bilera abenduaren 28an egin zen –haurtxo errugabeen egunean-. Gai-zerrendarik gabe adierazi zen ez zela onartuko eta ez zela egintzat hartuko formala eta idatzizkoa ez zen alegaziorik. Era berean, Justizia Saila Saila-

ren mendean ofizioko txandarako bulego bat sortzea aztertzen ari zela jakinarazi zen, zerbitzua administratibotik eskaintzeko, gaur egungo sistema alde batera utzita eta elkargoak eta abokatu partikularrak alde batera utzita. Jarrera hori ikusita, bazkuneko ordezkariak bilera utzi zuten.

Jarrera horren aurrean, Bazkunak esku-hartze gehiago egin zituen, Justizia sailburuari zenbait kexa-gutun bidali baitzizkion eta Parlamentuan zenbait interpelazio egin baitziren. Baina ez zen erantzunik jaso.

Une horretatik aurrera ia ez zen komunikaziorik egon. Maiatzean, Eusko Jaurilaritzak hipoteka-exekuzioetarako zordunentzako zerbitzu berezia sortzea proposatu zuen, eta azkenean Ekonomisten Elkargoaren esku utzi zen eginkizun hori. Jarraian, abokatuen elkargoei hipoteka-exekuzioetarako ofizioko txanda berezia sortzeko eskatu zitzaion.

Ez da analisi sakonik egin behar proposamen horren lotsagabeberiaz ohartzeko. Izan ere, Bazkunari eskatzen zaio hipoteka-exekuzioen arloko gaitan lan egiteko izendapenak egin ditzala, eta gai horietarako doako justizia ukatzen ari da. Eta ezin dugu ahaztu Dekretuak, une hartan argitaratzeko puntuan zegoenak, eragotzi egiten duela legegariak gai horienatik kobratzea.

Azkenean Dekretua uztailean argitaratu zen eta irailaren 1ean jarri zen indarrean, abokatuei sistema berrira egokitzeko denborarik eman gabe, elkargoei praktikan jartzeko aukera emateko denborarik gabe, elkargoei aldaketak eta egokitzapenak egiteko baliabide informatikorik eman gabe.

Azken ondorio moduan, hurrengo hauek egiten dituen Dekretuari egin behar diogu aurre:

- 1) Gai batzuetan egiten dugun lanaren laurden bat kobratzea eragozten du; ordainsarien %75 soilik ordaintzen da aitorpen-fasean eta %25 kobratzeko exekuzio-fasean parte berria aurkeztu behar da; ahaztu egiten da agian ebazpen judizial guztiek ez daukatela lotuta nahitaezko exekuzioa.
- 2) Trafikoaren Segurtasunari buruzko prozeduretan, adingabeei buruzkoetan, etxeko indarkeriari edo maulari buruzkoetan ez daukagu bermatuta gure lana kobratuko dugula, doako justizia izapidetu edo lortzen ez bada. Izan ere, Eusko Jaurilaritzaren ustez, zerbitzua bermatu behar da baina ez da arduratu behar legegariak zerbitzu hori kobratuko duten edo ez.
- 3) Zioen Azalpenean ez da egia esaten; izan ere, ez dira eginkizunak argitzen eta espedienteak izapidetzea herritarrentzat eta abokatuentzat askoz zailagoa eta konplexuagoa da.
Era berean, ez da egia giza baliabideak libre uzten direnik.
- 4) Txanda izapidetutako espediente kopuruaren arabera Bazkunari ordaintzeko sistema bertan behera uzten da, eta horren ordez kopuru finko eta aldaezina ematen da. Izan ere, herrialdearen egoera ekonomikoa kontuan hartuta, badakite doako justiziaren espediente gehiago izapidetu beharko dituztela, baina ez diete abokatuei diru gehiago eman nahi zerbitzuaren prestazioaren truke. Hori dela eta, ordaintzeko sistema aldatu dute, gure baliabideak mugatuz, ordaintzeko moduluak eta kudeaketa sistema murrizten dituzten bezala, nahiz eta jakin dakiten horrela legegariak ezini zango ditugula kobratu landutako gai guztiak.
- 5) Dekretuaren artikuluko batek ere ez du hobetzen doako lagun-

tza juridikoaren sistemaren eraginkortasuna onuradunentzat, gobernuaren defentsa politiko eta demagogikoa beti izan den arren dekretuaren helburua oinarritzko eskubidea den zerbitzu bat bermatzea dela; Justizia Saileko arduradunaren esanetan, gure kolektiboaren helburu bakarra gure ordainsariak kobratzea da.

Eta leporatu egiten digute gure interes partikularrei lehentasuna ematen diegula, nahiz eta zerbitzu hori guk eskaini eta ez haiek, eta praktikan laguntza eta defentsa eskubidea guk garatu arren, merkatuko ordainsariak modu bidezkoan kobratzeko aukerarik izan gabe.

Zerbitzu honek izaera soziala du eta hori ezini zango da inoiz zalantzan jarri.

Baina Administrazioetik bidezko laguntzak jaso beharrean, eragozpenak jartzen dizkigute, konpentsazio ekonomikoak murrizten dira, eta izapide burokratikoak biderkatzen dira. Horrez gain, sistema publikoari dagokion zama guri leporatzen zaigu, hau da, zerbitzua betetzen dela eta gure ordainsari batzuk kobratzen direla bermatzeko kudeaketa administratiboak egitea. Horren guztiaren eraginez, alderdi juridikoei denbora gutxiago eskainiko diegu, eta horrek, zalantzarik gabe, kalte egingo dio laguntza juridikoaren hartzailea den herritarriari.



Prozesu luzea izan da, gorabehera handiko prozesua izan da, eta azkenean, Eusko Jaurilaritzak dekretu baten bidez berea ezarri du, garrantzi handiko gai baten inguruan proiektu bat argitaratuz. Baina, gure ikuspuntutik, ez du erantzukizuneko jokatu, urte askotan gehiengo gardentasunez eta eraginkortasunez zerbitzua eskaintzen ari garenon iritziak entzuteko, aztertze eta agian onartzeko adostasunik, elkarrizketarik eta iragazkortasunik erakutsi ez duelako. Prozesua konplexua izan da, eta ez dira kontuan hartu mota honetako ezaugarriak dituen zerbitzu publiko bakar hau eskaintzea bermatzen duten profesional partikularrak. Gainera, prozesu honetan Administrazioak komunikabideak erabili ditu gure kolektiboaren irudiari modu bidegabean kalte egiteko. Gure esku dago berriro ere oker daudela erakustea.

DOAKO LAGUNTZA JURIDIKOKO DEKRETUAREN APLIKAZIO PRAKTIKOA

Lankide estimatua:

Aurreko zirkularrean adierazi bezala, Legelarien Euskal Kontseiluak Doako Laguntza Juridikoari buruzko 210/2012 Dekretuari errekurtoa aurkezteko erabakia hartu zuen; horrez gain, Bazkunak Dekretuaren aurkako neurriak hartu behar ditu. Dena dela, Dekretua **2012ko irailaren 1ean** indarrean jarrikoenez, egokia iruditu zaigu testu hori indarrean jartzeak Doako Laguntza Juridikoaren (DLJ) zerbitzuen funtzionamenduan izango dituen ondorioak laburtzea:

Atxilotuari emandako laguntzan:

Dekretuaren arabera, elkargoek **pertsona gehiago izendatu behar dituzte guardian**. Pertsona horiek auzialdiko epaitegietan atxilotu gabeko egotziak artatuko dituzte bidez ere. Horren eraginez, barruti judizialen batean, zerbitzu hori handituko dugu.

Orain abokatuaren guardia lanerako prest egotean datza, eta beraz, elkargoek ez dugu jasoko aitortutako laguntza bakoitzeko zenbateko bat; horren ordez urtean kopuru osoa emango zaigu, aurreko urteetakoaren antzekoa. Bazkunak, orain arte bezala, barruti judizial bakoitzeko bakoitzeko bakoitzeko eskaini ohi zaion guardiaren izaeraren arabera esleitzen zaizkigun kopuruak banatuko dira.

Lan egiteko modua ez da aldatuko, hau da, mezulariak/telefonoak Bazkuneko bulegoetan jasoko dira 9,00etan; eta asteburuko guardiaren kasuan barruti judizial bakoitzeko guardiako epaitegiaren ohiko ordutegian. Ekipoak eman eta jasotzeko unean puntualak izatea beharrezkoa dela gogorarazten dugu, guardian sartu eta guardiatik ateratzen den pertsonen arteko harreman pertsonala egon dadin, behar den moduan funtzionatze aldera.

Era berean, ez da aldatu atxilotze zentro desberdinetatik

jasotzen diren deiei berehala erantzuteko betebeharra eta polizia-etxeetako lehenengo aitorpenean zein guardiako epaitegietako edo instrukzioko epaitegietako hurrengo aitorpenean artatutako atxilotuen datuak Bazkunari komunikatzeko betebeharra Laguntza Agiriaren bidez (agiri hori apur bat aldatu da, atxilotua hobeto identifikatzeko –Laguntza Agiria–).

Atxilotuari Laguntzeko zerbitzuari dagokionez, berrikuntza nagusiak Dekretuaren 15. eta 16. artikuluetan jaso dira. Egotziaren sarreraren adierazpena guardiako legelariak egin behar du laguntza eskaini ondoren eta gaia ofizioko txandan esleituta izan ondoren. (II. eranskina) eta (IV. eranskina), azken hori atzerritarrentzat.

Artatzen diren gai penal guztietan, gero salbuespen moduan adieraziko ditugunetan izan ezik, atxilotuari/egotziari **II. eranskineko inprimakia (edo IV.a atzerritarren kasuan)** aurkeztu beharko diogu. Inprimaki horretan adierazten da, defendatuak, une horretan dauden aurrekariaren arabera, doako justiziaren onuraduna izateko betekizunak betetzen dituela.

Dokumentu hori Bazkunean behar den moduan beteta aurkeztu behar da, atxilotua/egotzia artatu denetik hilabete epean, eta horrekin batera, autoizendapeneko agiria. Modu horretan, Bazkuniket doako justizia balioztatzeke izapideak egingo ditugu eta legelariak ordainketa-eskubi-dea ematen duen jardunaren egiaztapen agiria aurkeztu ondoren, ordaintzekoen barruan sartuko dugu. Jardun horiek Dekretuaren IV. eranskinean jaso dira. Dokumentu hori izapidetu gabe, Bazkunean ezin izango da aurkeztu autoizendapen agiririk.

Arau orokorraren **salbuespen moduan** eta hurrengo kasuetan (15-1 art. laugarren paragrafoa eta 16-3 art.), hauek ezarri dira:

- Legelariaren ustez guardiako txandan artatutako pertso-

nak ez ditu betetzen doako justizia jasotzeko betekizunak.

- Bide-segurtasuneko delituak.
- Adingabeek egindako delituak.
- Familia barruko genero-indarkeria (egotziak)
- Maulak.

Kasu horietan, legelariak egotziari III. eranskinen dokumentua aurkeztuko dio, sinatu dezan. Agiri horren bidez, azken horrek 10 eguneko epean OJZn Doako Justizia izapidetzeko konpromisoa hartzen du. Eranskin hori legelariak OJZren bulegoetan aurkeztu beharko du, gertaera horren berri izan dezan eta egotziari DLJ ematen bazaio ofizio profesional moduan izendatu dezaten. *Kasu horietan, Bazkunean ez da autoizendapen izenokoa aurkeztu behar.*

Kasu horietan diru-laguntza ordaintzea bermatuta ez dagoenez, egotziak OJZra joan behar baitu DLJren eskaera aurkezteko eta DLJ Doako Justizia Batzordeak eman behar baitu, gure gomendioa da laguntza bulego judizialetan eskaini ondoren (edo fiskaltzan adingabeen kasuan), legelariak epaitegian/fiskaltzan **defentsan desenkusa** bat aurkez dezala berehala, eta eska dezala horren berri Bazkuneraren emateko, horrek erabaki dezan ea onartzen duen Doako Justiziari buruzko 1/96 Legearen 31. artikulua oinarri hartuta; dena dela, dokumentu horren kopia Bazkunean entregatuko da. Eredu hori gehitu dugu (desenkusa eredu). Bazkunak desenkusa horren inguruan ebatziko du al bait azkarren.

Egotziak OJZn kasuan kasuko espedientea izapidetu eta Doako Justizia Batzordeak onartzen badu, Bazkunak egotzia bere garaian artatu zuen legelaria izendatuko du, desenkusa arrazoia desagertu baita.

Etxeko indarkeriaren biktimak artatzen direnean, kontuan hartu behar dugu bere garaian Eusko Jaurlaritzarekin sinatutako hitzarmena. Horretan *Ofizioko Txandaren kargura, guardiako egunean edo hurrengo egunetan egindako epaiketa azkarra sartzen da, babes-aginduari buruzko eskaera egon zein ez egon*. Kasu horietan, gure ustez, egoera ez da aldatu; beraz, prozeduran parte hartu ondoren, autoizendapen agiria aurkeztuko da Bazkunean eta etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoaren biktima egon dela aipatuko da. Gerora gerta daitezkeen zigor gaitetarako edo erreklamazio zibiletarako, biktimak DLJ izapidetu beharko du OJZn.

Ofizioko Txandan:

Dekretuan ezarritakoaren arabera, esku hartzen duten profesionalen kasuan kasuko modulua kobratzeko eskubidea izango dute soil-soilik artatutako pertsonak doako justiziaren onuradunak badira. Hori dela eta, Bazkunak izendapena egingo du eskubide hori izapidetu eta lortu ondoren, Doako Justizia Batzordeak edo kasuan kasuko epaitegiak aldeko ebazpena emanda.

Familia gaitetarako modulu bakarra ezarri da prozedura guztietarako (auzi-prozedurak zein adostasun prozedurak izan), baita alderdi bakoitzak legelari bat izendatzea ere. Era berean, doako justiziaren izapidetza eta justifikazioa modu indibidualizatuan egin behar dira. Betearazpenak epaia irmoa denetik urtebete igaro ondoren zenbatu ahal izango dira, kasuan kasuko betearazpen modulua zenbatuta.

Orain arte bezala, neurriak aldatzeko prozesuak prozedura berri-tzat hartuko dira, eta DLJ berriro izapidetu beharko da, Bazkunak legelari bera izendatu arren.

Dekretura bildutako moduluetan gai zibilen eta lan arloko gaien xehatzea ezarri denez, %75 adierazpen fasearen hasieran, eta gainerako %25 betearazpen fasearen hasieran, Bazkuneko bulegoetan egiaztapen agiria aurkeztu behar da bi faseetako bakoitza hasten den unean, eta gure gomendioa da epaia eman ondoren betearazpena aurkezteko beharra berehala azter dadila (batez ere lan arloko gaietan, ofizios egin arren).

Garrantzitsua da epe berriak adieraztea, askoz murriztaileagoak direlako, **egiaztapen agiriak aurkezteko iraungipenari** dagokionez; izan ere, ordaintzeko eskubidea ematen duen jarduna zein hiruhilekotan egin eta horretan soilik aurkeztu ahal izango dira, edo salbuespen modura, hurrengo hiruhilekotan. Ildo horretatik, komeni da bakoitzak berrikustea gaur egunera arte egindako jardunengatik Bazkunari komunikatu gabe dituen gaiak.

Bestalde, likidazioak hiruhilean izatea ezarri da, 2012. urtean justifikatu gabe dauden bi hiruhilekoak izan ezik. Eusko Jaurlaritzak horiek 2013. urtearen hasieran ordainduko ditu.

Konpentsazio ekonomikoaren moduluei eta oinarriei dagokionez (moduluak), familia-gaietan izan ezik, horretan egon dauden biak bakar batean bateratu baitira, %7 murriztu dira orain arte indarrean zeudenekin alderatuta.

Dekretu berriak egotziak legelaria askatasunez izendatzea eta profesionalak onartzea ezarri du jurisdikzio zibilean, lan arlokoan eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, baina kupo batzuen arabera mugatuta, espezialitatearen eta barruti judizialaren arabera, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailak Dekretua indarrean jarri aurretik eman behar duen agindu batekin bat etorriz.

Dekretu berria aplikatuko zaie irailaren 1etik aurrera DLJ izapidetzen duten gai guztiei. Aurretik izendatutako gaiei 1996. urteko Dekretua aplikatuko zaie.

Irailean beste zirkular bat igorriko da laguntza agiriak, autoizendapenak eta berrespenak aitortzeko formatu informatiko berria ezarri eta azaltzeko. Horretara egokitu beharko dugu Bazkunari gure jardun guztiak justifikatzeko guardietan zein ofizioko txandan.

Edonola ere, oraintsu argitaratutako Dekretua arretaz irakurtzea gomendatzen dugu, xehetasun guztien berri izateko. (Dekretua)

Zure lankidetzarengatik eskerrak emanez, har ezazu nire agur zintzoa.

NAZARIO DE OLEAGA

DEKANOA



EUROPA GOTORLEKUA: POLITIKAK, ONDORIOAK ETA BABES MEKANISMOAK



Salva la Cruz,
Mónica Fernández
eta Paloma Soria

Ekainaren 25ean eta 26an, gure Bazkunean, “Europa Gotorlekua: politikak, ondorioak eta babes mekanismoak” jardunaldia egin zen, Europan sartzean asilo eskubidea urratzeari buruz. Jardunaldia CEAREk antolatu zuen eta Aldundiaren eta Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren lankidetzat izan zuen.

Aurkezpena Patricia Barcenak CEAREN izenean eta Alazne Camiñak Bizkaiko Aldundiaren izenean egin zuten. Patricia Barcenak gaiaren sarrera laburra egin zuen. Amsterdamgo 1999ko Itunetik aurrera, asilo-politikak estatuetatik independente izateari utzi zion, eta Europarako politika erkidea sortu zen: Europa Gotorlekua. Hala ere, kasu askotan, asilo-eskatzaileek ez dute babesa lortzen, eta egoera horrek giza eskubideak urratzen ditu.

Aurkezpenaren ostean, Eduardo Romero Cambalache ikas-kuntza kolektibo autokudeatuaren elkarteko kideak hartu zuen hitza. “Espainiako migrazio politika: loraldi ekonomiko-

tik krisialdira” gaia jorratu zuen. Asturiasko egoera aztertu zuen lehenengo. Probintzia horretan 50.000 immigrante daude. Hizlariaren esanetan, immigranteen aurka suntsitze egoera dago, poliziaren kontrola oso handia da, eta ohikoa izaten da 2-3 gau espetxean egitea. Poliziak Marokoko adingabeek etengabe zirikatzen dituztela nabarmendu zuen.

Ondoren, Espainiako migrazio politika aztertu zuen, lehenengo kanpoko ikuspuntutik, eta gero barruko ikuspuntutik. Kanpo politikatik sinestarazten digute immigrazioa mehatxua dela. Egia esan, xedea ez da migrazio-fluxuaren kontrolak egitea soilik, emigranteak jatorrizko hirietan mantentzea baino.

Jatorrizko hiri horiei herrialde batzuek kalte egin diete, hala nola Espainiak. Egoera horren adibide moduan, Romerok Afrika 2006 Plana gogoratu zuen. Orduan, Espainiako enpresek interesak zituzten Ginea Berrian, eta Espainiak

arrantza-interesak zituen Afrikako lurretan. Era berean, mendebaldeko itsasontziek substantzia toxikoak isurtzen zituzten Somaliako uretan, eta Espainiak gasa eta petrolioak jasotzen zituen Gineatik, Ekuatoretik eta Nigerretik.

Respecto a la cobertura financiera de la prestación farmacéutica, ésta incluirá a los colectivos incluidos en los apartados 2) y 3) anteriores. Con carácter general se deberá satisfacer el 40% del gasto farmacéutico sobre el precio de venta al público, salvo determinados colectivos (muchos más que con la legislación anterior) que estarán exentos.

La aportación se realiza en el momento de la dispensación, de forma que si la misma se realiza en una farmacia ubicada fuera de la CAPV, se podrá pedir el reintegro de la misma.

BESTEAK

> **2/2012 Legea, ekainaren 29koa**, 2012rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. (BOE 12-6-30).

> **75/2012 Dekretua, maiatzaren 15ekoa**, Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2013. urteko jaiegunen egutegia onartzeko dena. (EHAA 12-6-4).

> **10/2012 Legea, maiatzaren 30ekoa**, Jaurilaritza buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legea erreformatzekoa. (EHAA 12-6-7).

> **92/2012 Dekretua, maiatzaren 29koa**, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomiadunetako enplegatu publikoek zerbitzua telelanaren bidez modalitate ez-presentzian nola eman arautuko duen Akordioa onartzeko dena. (EHAA 12-6-7).

> **12/2012 Legea, ekainaren 21ekoa**, Kiroleko Dopinaren aurkako. (EHAA 12-6-28).

**EUROPAR
BATASUNEKO
ZUZENBIDEA**

> **2012/13/UE Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko maiatzaren 22koa**, zigor prozesuetako informaziorako eskubideari buruzkoa. (EBAO 12-6-1).

La presente Directiva establece normas relativas al derecho de las personas sospechosas o acusadas a recibir información sobre sus derechos en los procesos penales y sobre las acusaciones formuladas contra ellas. Establece también el derecho a la información sobre sus derechos de las personas objeto de la ejecución de una orden de detención europea.

Se aplica desde el momento en que las autoridades competentes de un Estado miembro ponen en conocimiento de una persona que es sospechosa o que se le acusa de haber cometido una infracción penal, hasta la conclusión del proceso, es decir, hasta la decisión definitiva que determina si la persona sospechosa o acusada ha cometido o no la infracción penal, incluidas, cuando proceda, la imposición de la condena y la resolución de cualquier recurso.

En caso de que la legislación de un Estado miembro prevea la imposición de sanciones por infracciones menores por parte de una autoridad distinta de un tribunal con competencia en materia penal, pero la sanción pueda ser objeto de recurso ante este tipo de tribunal, la presente Directiva solo se aplicará al proceso ante dicho tribunal a raíz del recurso en cuestión.

- IRAILA -

ZUZENBIDE FISKALA

> **2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena**, Tributuaren Zuzendaritza Nagusiarena, **Balio Erantsiaren gaineko Zergan ondasun emate eta zerbitzuen prestazio batzuei aplikatzeko moduko zerga tipoari buruzkoa dena.** (BOE 12-7-6).

> **2012ko uztailaren 16ko Ebazpena**, Tributuaren Zuzendaritza Nagusiarena, **Sozietateen gaineko Zergan finantzagastuen kengarritasuna murrizteari buruzkoa dena.** (BOE 12-7-17).

> **3/2012 Foru Dekretu Arauemailea, uztailaren 17koa**, Honen bidez, **Balio Erantsiaren gaineko Zerga eta Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga aldatzen dira.** (BAO 12-7-23).

**LANA ETA GIZARTE
SEGURANTZAREN
ZUZENBIDEA**

> **3/2012 Legea, uztailaren 6koa**, **lan-merkatua erreformatzek presako neurri buruzkoa.** (BOE 12-7-7).

Se reforma el marco regulador de las empresas de trabajo temporal al autorizarlas a operar como agencias de colocación.

Se reconoce la formación profesional como un derecho individual, reconociéndose a los trabajadores un permiso retribuido con fines formativos. También se modifica el contrato para la formación y el aprendizaje para potenciar el empleo juvenil mediante la supresión de limitaciones injustificadas. En el contrato a tiempo parcial se admitirán la realización de horas extraordinarias.

Se regula el teletrabajo para darle mayores garantías.

Se crea una nueva modalidad de contrato de trabajo por tiempo indefinido de la que sólo podrán hacer uso las empresas que tengan menos de cincuenta trabajadores. Se racionaliza el sistema de bonificaciones para la contratación indefinida. El sistema de clasificación profesional pasa a tener como única referencia el grupo profesional para garantizar la flexibilidad laboral.

En materia de suspensión del contrato de trabajo y reducción de la jornada por causa económicas, técnicas, organizativas o productivas se suprime el requisito de autorización administrativa.

En materia de negociación colectiva se prevé la posibilidad del despliegue del convenio colectivo en vigor, se da prioridad al convenio colectivo de empresa.

Se adelanta el fin de la suspensión de la imposibilidad de superar un tope máximo temporal en el encadenamiento de contratos temporales.

En el despido colectivo se suprime la autorización administrativa, manteniendo la exigencia de un período de consultas, pero sin exigirse un acuerdo con los representantes de los trabajadores para proceder a los despidos.

Se generaliza para todos los despidos improcedentes la indemnización de 33 días, con un

tope de 24 mensualidades.

Se suprime el despido exprés y se establece como único supuesto para hacer efectivo el pago de los salarios de tramitación, cuando el trabajador sea readmitido en la empresa.

Se modifica el régimen del Fondo de Garantía Salarial, limitando su ámbito de actuación al resarcimiento de parte de las indemnizaciones por extinciones de contratos indefinidos que tengan lugar en empresas de menos de 25 trabajadores y no hayan sido declaradas judicialmente como improcedentes.

Se crea una nueva modalidad procesal para el despido colectivo otorgándole un carácter preferente y urgente, atribuyendo a los TSJ y a la AN el conocimiento en primera instancia.

La impugnación individual de la extinción del contrato en el despido colectivo se sigue atribuyendo a los Juzgados de lo social.

Se prevé una limitación de la indemnización a otorgar a los directivos y administradores de las entidades bancarias que hayan sido participadas mayoritariamente o estén apoyadas financieramente por el Fondo de Reestructuración Ordenada Bancaria.

> **PRE/1490/2012 Agindua, uztailaren 9koa**, **Europar Batasuneko estatu kideetako eta Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa osatzen duten beste estatu batzuetako herritarrek Espainian sartu, askatasunez zirkulatu eta bizitzeari buruzko otsailaren 16ko 240/2007 Errege Dekretuaren 7. artikulua aplikatzeko arauak ematen dituena.** (BOE 12-7-10).

> **1192/2012 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa**, **aseguratu eta onuradun izaera arautzen duena Espainiako osasun-laguntzaren ondoretarako**, funts publikoen kargura, Osasun Sistema Nazionalaren bidez. (BOE 12-8-4).

> **1191/2012 Errege Dekretua, abuztuaren 3koa**, **etxebizitza alokatzeko pentsio-osagarria aitortzeko arauak ezartzen dituena Gizarte Segurantzako pentsiodunen mesedetan, modalitate ez kontributiboan.** (BOE 12-8-4).

> **2012ko abuztuaren 2ko Ebazpena**, **Osasun eta Farmazia Sistema Nazionaleko Zerbitzuen Oinarrizko Zorroaren Zuzendaritza Nagusiarena, Osasun Sistema Nazionalean farmazia-prestaziotik kanpo geratzen diren botiken zerrenda eguneratzeko.** (BOE 12-8-17).

> **23/2012 Errege Dekretu-legea, abuztuaren 24koa**, **langabeziaren ondoriozko babesa agortzen duten pertsonen lanbide prestakuntzako eguneratze programa luzatzeko.** (BOE 12-8-25).

BESTEAK

> **4/2012 Legea, uztailaren 6koa**, **turismo erabilerako ondasunak txandaka aprobetxatzeko, iraupen luzeoko opor produktuak eskuratzeko, birsalmentarako eta trukatzeko kontratuei eta tributu araei buruzkoa.** (BOE 12-7-7).

> **5/2012 Legea, uztailaren 6koa**, **gai zibil eta merkataritza gaietako bitartekotzari**

buruzkoa. (BOE 12-7-7).

El régimen que contiene la Ley se basa en los principios de voluntariedad y libre disposición, imparcialidad, neutralidad y confidencialidad. A estos principios se añaden la buena fe y el respeto mutuo, así como su deber de colaboración y apoyo al mediador. La voluntad de las partes expresada en el acuerdo que la pone fin al procedimiento, podrá tener la consideración de título ejecutivo, si las partes lo desean, mediante su elevación a escritura pública.

Se manifiesta en la opción de la suspensión de la prescripción cuando tenga lugar el inicio del procedimiento frente a la regla general de su interrupción, con el propósito de eliminar posibles desincentivos y evitar que la mediación pueda producir efectos jurídicos no deseados.

Asimismo, con el fin de facilitar el recurso a la mediación, se articula un procedimiento de fácil tramitación, poco costoso y de corta duración en el tiempo.

Dentro del proceso civil. Se regula así la facultad de las partes para disponer del objeto del juicio y someterse a mediación, así como la posibilidad de que sea el juez el que invite a las partes a llegar a un acuerdo y, a tal fin, se informen de la posibilidad de recurrir a la mediación. Por otro lado, se prevé la declinatoria como remedio frente al incumplimiento de los pactos de sometimiento a mediación o frente a la presentación de una demanda estando en curso la misma.

Por último esta ley modifica la Ley 34/2006 con el fin de no exigir el título profesional para ejercer como abogado a quienes obtengan un título de licenciado en derecho con posterioridad al 31-10-2011 o hubieren solicitado la homologación de su título extranjero de licenciado en derecho antes del 31-10-2011 o a quienes el 31-10-2011 se encontraran en posesión del título de licenciado o grado en derecho o en condiciones de solicitar su expedición, siempre que en el plazo máximo de dos años, procedan a colegiarse, como ejercientes o no ejercientes.»

> **20/2012 Errege Dekretu-legea, uztailaren 13koa**, **aurrekontu-egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurri buruzkoa.** (BOE 12-7-14).

> **14/2012 Legea, ekainaren 28koa**, **transsexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa.** (EHAA 12-7-6) (BOE 12-7-19).


> **110/2012 Dekretua, ekainaren 19koa**, **Doako Laguntza Juridikoari buruzkoa.** (EHAA 12-7-6).

**EUROPAR
BATASUNEN
ZUZENBIDEA**

> **650/2012 zenbakiko Erregelamendua (EB)**, **Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2012ko uztailaren 4koa**, **lehiari, lege aplikagarriari, ebazpenak aitortu eta beteartzeari, mortis causa ondorengotzen arloko dokumentu publikoak onartu eta beteartzeari eta Europako oinordetza-ziurtagiria sortzeari buruzkoa.** (EBAO 12-7-27).



REUNIÓN EN EL RESTAURANTE NOSTALGIA



Egilea:
Anne Tyler

Itzulpena:
Aurora Echevarría

Lumen, 2012.
392 or.; 18,95€

Anne Tyler-ekin (Minneapolis, 1941) gauza bixia gertatzen zait. Idazleak idatzitako zerbait irakurtzen dudan bakoitzean, aspaldiko adiskide bat ikusten dudala iruditzen zait. Idazlea irakurtzea topaketa bat izatea bezalakoa da. Kafetegi batean solasaldi lasaia izatea. Ez dago presarik eta ondo egoten da bere ondoan. Berak hitz egiten du etengabe eta oso atsegina da entzutea. Elkarrizketarako dohaina du eta intsinuazioa inork baino hobeto erabiltzen du. Badakizue, "izozmendiaren" teoria. Zati txiki-txiki bat erakutsita, irakurleak azpian ezkutatzeko den guztia sumatzen du. Adibide bat. Hiru haur txikirekin senarrak bertan behera utzitako emakumearen egoera ekonomikoa deskribatzeko, esaldi hau soilik erabiltzen du: "rezaba para que los pies de sus hijos dejen de crecer" (otoitz egiten zuen seme-alaben oinak gehiago ez hazteko).

Tyler-en liburu guztiak onak dira. Oraindik hasi ez bazarete, mundu oso bat daukazue aurrean. "El turista accidental", "Ejercicios respiratorios" eta "La brújula de Noé" eleberri bikainak dira. Baita "Reunión en el restaurante Nostalgia" agian onena izango da. Tyler-ek 85 urte dituen Pearl emakumearen istorioa kontatzen digu. Emakumeak bizitzako unerik garrantzitsuenak oroitzen ditu. Hiru seme-alabak alboan dituela,


ohean etzanda, balantzea egiteko ordua da.

Tyler-en ondoan orduak eta orduak egin ditzakezu. Idazleari entzutea bizitza aurkitzea da. Amonatxo jakintsua dirudi. Idazlearen eskutik, pertsonak hobeto ezagutzen ditugu. Pertsonen barruan zer ezkutatzeko den ikusten dugu. Hori bai, tonua deitsua erabili arren, pasarte batzuk izugarriak dira. Bakardadea, denbora galdua, gaixotasuna. Baina, bitxia bada ere, eleberria irakurri ondoren lasai sentitzen zara. Ez dakit nola lortzen duen. Hotz pentsatuta, Tyler-ek gauza izugarriak kontatu dizkigu. Eta, hala ere, liburuia ixtean ezpainetan irribarre inozoa daukat. Pertsonaiekin bat egin dut, inperfektuak dira, nire burua identifikatuta ikusten dut, ni neu izan naiteke, gustatu egiten zaizkit. Tyler-ek lasaitasuna uzten digu, bizitza bat kontatu duelako, une makur eta zoriontsuekin. Ingelesek termino grafiko bat erabiltzen dute bizitzaren gorabeherak adierazteko. "Up and down" esaten dute. Bizitza karrusel baten moduan. Terapia hutsarengatik, komenigarria izango litzateke une zoriontsuak gordetzea. Esaterako, eleberri honetan kontatzen den eske roneko afari go-goangarria. Bertan behera utzitako ama hiru haurrekin Monopolyan jolasten eta antzezlan bat ikusten. Zoragarria.

"Cuando no se piensa lo que se dice es cuando se dice lo que se piensa".

Jacinto Benavente

LA EDAD DE LA DUDA



Egilea:
Andrea Camilleri

Itzulpena:
Teresa Clavel

Salamandra, 2012.
219 págs.; 16,95€

Elkargoko Kultura Batzordeko kideek urtean pare bat aldiz jatetxe batean elkarrekin jaten dugu. Balantzea egiten dugu, proiektu berriak prestatzen ditugu eta barre egiten dugu. Gainera, bilera horretan kultura-gomendio onak aipatzen dira. "Jonhy Cashek hil aurretik grabatu zituen grabatu zituen bost diskoak entzun behar dituzu", esaten didate. "Madrilera bazoaz, ikusi Hooper-en erakusketa", entzuten dut. Nire aurrean zinemari buruz hitz egiten ari dira, gaur egun ere izututa oroitzen dudana "El cebo" film estugarriari buruz... Handik gutxira, liburuei buruz hitz egiten hasi dira. Urteko lanik onenei buruz galdetu dute eta hainbat liburu aipatu dira, hala nola "Stoner" eta "El niño perdido". Batzuek literatura ihesbide moduan aldarrikatzen dute. Entretanimenduaren balioa, denbora igarotzea, abentura batez gozatzeko beste guraririk gabe... Arrazoiak daukate. Nik ere Elmore Leonardengan babesa bilatzen dut eta barre egiten dut hirugarren mailako bizkartzainekin eta hanpako jendearekin. Michael Connolly, Daniel Ballaci eta Don Winslow ere gustatzen zaizkit. Bizkorak dira, baita Sue Gratton eta Larssonen trilogia ere. Camilleriri eta Montalbano sagari buruz galdetu dute. "... nik ez ditut irakurri", erantzun dut. Gaitzesenez begiratu naute: "Ezin dituzu irakurri gabe utzi".

Eta hemen nago. Etxeko lanak egin ditut. "La edad de la duda" irakurri dut. Azal-hegalean jartzen duenez, Salvo Montalbano inspektorearen

hamazortzigarren abentura da. Andrea Camilleri (Sizilia, 1925) fikziozko polizia bitxi hau 1994. urtearen amaieran sortu zuen. Eta bete-betean asmatu zuen. Milioika irakurle ditu eta Italian ospe handia duenez, telebistako seriea ere badu. Camilleriren jarraitzaileek barkatu behar naute, baina ez daukat inolako irizpiderik sagaren barruko lan on baten aurrean gauden edo beste bat besterik ez den esateko. Istoria oso atsegina egin zaidala esan dezaket. Kutuna egin zait. Pertsonaia eta ingurua. Ordu batzuetan Vigatàm nengoela sentitu dut, Montalbanoaren kostako herri txikian, Sizilian. Bertatik dabiltzan pertsonaien mikrokosmosa ikusten gozatu dut. Cataré laguntzaile ez oso azkarra bikaina da, oso barregarria. Dottore Pasquano umore txarreko forentseak, Fazio laguntzaile leialak eta Lattes jainkojaleak ere grazia egiten dute. Eta, nola ez, *Trattoria de Enzo* aipatu behar da. Bertan egoten da Montalbano egunero ideiak antolatzen. Logikoa da, barbarin oso gozoak, alberjiniak pamesanoarekin, pasta brokoliarekin eta *caponatina* zoragarria daukatela kontuan hartuta.

Abentura alde batera utzita –hilketa berezi batzuk diamante trafikatzailerik batzuen sareari lotuta-, Camillerik gai sakonagoen inguruan gogoeta egiten du. Adibidez, denbora igarotzeari buruz. Montalbano inspektorea ez dago sasoi bete-betean. Urteak bete ditu, ajeak ditu eta desirari eta bigarren aukerei buruz gogoeta egiten du.



PROFESOR LAZHAR (MONSIEUR LAZHAR) Philip Falardeu. Canadá

Jendea zinemara ez doan aldian, film batek karteldegian sei edo zazpi aste jarraian egitea datu nahiko sintomatikoa da, eta zinemazaleak jakingura sentitzen du. Estreinaldi handiek ere ez dituzte lau aste irauten.

A priori nagikeria sentitzen nuen eskolari lotutako gaiak dituen film bat ikusteko. *Rebelión en las aulas* eta *El club de los poetas muertos* filmak nire ustez ez dira oso ondo zahartu. Genero horretan agian Tavernier-en *Hoy empieza todo* filma izango da ondoen asmatzen duena.



Baina kontuz, *Profesor Lazhar* ez da hezkuntzan soilik oinarritutako filma, beste gai asko ere sartzen baititu zeharka, (adibidez, heriotza), mezu na-

gusia lausotu baina handi bihurtzen dutenak. Mezu hori laburtuz, ohitura txar bat dago haur guztiak burbuila batean sartzeko eta gai zail eta tabu guztiak saihesteko. Modu horretan, ihes-tekniken bidez (psikologoa baliabide pedagogiko bakar moduan), arazoa aurrez aurre jorratzea saihesten da, haurrak txikiagoak balira legez tratatuz. Filmaren hasieran aurkitzen dugu protagonistak integrismo islamikoaren eraginez ihes egin behar izan duela eta ez duela arazorik bilatu nahi. Metodo arkaikoak ditu, baina

haurrek, azkarrak direnez, gizatasuna, ardura, funtsa eta forma gutxi antzematen dituzte, perspektiba berriei aurre egiten diete...

Haur tematik aduen filma, baina genero bereko beste batzuk baino askoz helduagoa. Ez du emakidarik egiten (ziurrenik horregatik ez zen igaro atzerriko filmik onenaren Oscar sarirako izendapenetik harago).

Emozio distilatua, baina mizkeriarik gabe (ohikoa baino sentikorra den eszena baten ostean beti dator lehoro edo gogor bat, antiklimax moduan).

Poesia ulergarri eta sakona; zinemazaleak ez ditu behar literatura hermeneutikako aurretiazko eskolak (irakaslea ikastetxera iristen denean, Kanadan negu gordina da, eta irakaslea joaten denean, udaberria hasten da -metafora horiek guztiok ulertzen ditugu-).

Laburbilduz, film zoragarria. Aktore ezezagun baten (Mohamed Fellag) interpretazio neurritsua du, eta errealizadorea ere guztiz ezezaguna da (zeregin horretan hamaika urte eraman arren). Errealizadoreak antzezlan baten gidua egokitu du, itxuraz bakarrizketa bat. Ziurrenik, bakarrizketa izateak egokitzapena zaildu egingo zuen.

Amaiera ez dugu argituko, baina hori ere gustatzen zait. Kanadan ez da ohikoa horrelakoak egitea, baina han ere txakurrak oinutsik dabilta. Garaia izango da.

SECCIÓN ESPECIAL Costa Gavras(1975)

Ahóndigako *Zinematikak* aukera ona eskaini digu zuzendari honen filmografia hobeto ezagutzeko. Atzera begirakoa ez da berari buruzkoa izan, Semprúnen gidoi zinematografikoei buruzkoa baino, baina azken horrekin zenbait urtez lankidetzan aritu zen. Filmografian zinema politiko edo salaketa zinema ugari dago, eta agian horren eraginez ez da agertzen ziurrenik merezi duen lekuan.



Berak egindako zinematik salaketa eduki argi adu, baina atal honetan askotan adierazi dugun

moduan, zuzendari askok haien filmak sorginen ehiza dela-eta egindako gehiegikerietan oinarritu zituzten, eta gaur egun kultuko zuzendaritzat hartzen dituzte.


Film baten hasierako kredituetan titulu hauek jartzen dituen batek *-Cualquier coincidencia con los hechos, los muertos o los supervivientes no es casual. Es VOLUNTARIA* (Benetako gertaerekin, hildakoekin edo biziekin dauden bat-egite guztiak ez dira kasualitatezkoak. BORONDATEZKOAK dira)- lerro gutxi batzuk merezi ditu.

Grezian jaio zen, baina ibilbide zinematografiko gehiena Frantzia egin du. Laster garai hartako ezkerreko intelektualen nukleo gogorarekin bat egin zuen (Yves Montand, Simone Signoret, Semprún...), eta 60ko hamarkada eta 70eko hamarkada bitartean egin zituen lanik onenak. Osperik handiena Ipar Amerikako filmik ezagunenari esker

lortu zuen, *Missing* (Jack Lemmon protagonista dela; filmak ileak tente jartzen ditu, eta bide batez esanda, ezinezkoa izango litzateke gaur egun grabatzea).

Sección Especial Hervé Villeréren liburua oinarri hartuta pantaila handirako egindako hurbilketa da -gidoiaren egokitzapena Semprúnek eta Coste Gavrarek egin zuten. Idazle horrek Petainen txotxongilo erregimenari buruzko irainak egin zituen (Petainen planorik ez dago, eta eskuak soilik ikus daitezke). Okupatutako gobernuak egindako bidegabekerietako bat Batzorde Berezia sortzea izan zen: batzorde ustela, Parisgo Apelazio Auzitegiaren mendekoa. "Ad hoc" aldarrikatutako legea aplikatzeaz arduratzen zen atzeraeraginez, Hirugarren Reichak bultzatuta. Helburua heriotza epaiak ematea zen, Alemaniaren odol-guraria asetzeko. Horretarako, nazien aurkako propaganda-delituengatik epaitu eta kondenatutako gizagaixoak ausaz hautatzen zituzten. Atentatu selektiboekin jarduten hasita zegoen Erresistentziaren gorakadak status quo berri hori eskatzen zuten.

Egoera zatarrak, dramatikoak beste batzuk, pertsonaien osaera zorrotza: okupazio gobernuaren magistratu mirabeak (jarraian haiek eror daitezkeela pentsatuta), duintasun apur bat duten beste pertsonaia ausart batzuk eta gezurrezko epaiketak egiteari uko egin ziotenak, legelari idealistak, kazetari konprometituak, naif erresistenteak... Ukitu europar argia duen filma, transmititzeko gaitasun handia duena. Eragozpen bakarra: eszenaratzea batzuetan apur bat kaotikoa da.



V/A NOBODY WINS – Stax Southern Soul 68-75



Cd
(Kent)
21 abesti

Badakigu Kent etxe britaniarrari esker soul klasikoa maite dutenek materiala daukatela. Urtea skotan erreferentzia osatuak argitaratu ditu, libretoen laguntzarekin, ohar zehatzekin eta *memorabilia* deigarriarekin. Beraz, ia ezinezkoa da hilero nobedadeen apaletan jartzen dituzten diskoak ez eskuratzea.

Iazko urtearen amaieratik, Estatu Batuen hegoaldeko etxe handien artxiboak sakon aztertzen dituzte, hala nola Stax eta Fame, eta lan horretan poztasunak lortzen ditugu. Azterketa horien buru dagoen ekipoak (Dean Rudland, Tony Rounce...) duela hilabete batzuk "Take Me To The River" eta "The FAME Studios Story" box-set bikainak aurkeztu zituen. Kutxa horiek harrera bikaina izan zuten. Eta onena da erabilitako denboraren ostean, datozen hilabeteetan material berri eta ezezagun asko eta disko klasikoek berredizioak aterako dituztela esan dutela.

"Nobody Wins" lanean hegoaldeko etxerik garrantzitsuenetakoenak (Stax Recors Memphisekoa) argitaratutako musika agertzen da. Etxe horrek hirurogeiko hamarkadan mota horretako soinua definitu zuen –oso gordina eta Detroitetik Tamla Motownen zehar iristen zen parafernalitik urrundua– izen handiei esker, hala nola

Otis Redding, Sam & Dave eta Booker T & The MGs. Eta, horretarako, Stax eta Atlanticean arteko zatiketaren osteko aldiak arakatzeko du, banatzaileak katalogoa kontsultatzeko aukerarik gabe utzi zienean. Hain zuzen ere, 1968 inguruan, etxeak funtzionatzeko modua aldatu zuen, musikaren eta zuzendaritzaren aldetik, eta esparrua beste izen eta agertoki batzuetara zabaltu zuen, baita herrialdeko beste inguru batzuetara ere, horietan –hegoaldeko soularen arrakasta aprobetxatuz– artista batzuk haien ekoizpenetan erantzuten ahalegintzen ziren eta.

Nobody Wins lanean garapen hori ikusten da, bitxitasunak eta lan ezezagunak nahasita. Eta etxeari lotutako izen batzuk agertzen diren arren –gutxi, baina nabarmentzekoak dira Eddie Floyd, William Bell eta Johnny Taylor–, oinarrian etxean oso gutxi aritu ziren artisten tema ezezagunak berreskuratzen ditu, lehen mailako materiala utzi zutelako, soul ona, sakona. Lan horietan, besteak beste, Steve Cropper-en gitarraren ukituak aurki daitezke, koherentzia emanez. Hogeita bat abesti, guztiak bikainak. Horietan ikusten da Stax erreferente diskografiko moduan mantentzeko eta vis atraktiva aprobetxatuz katalogoan proposamen bikainak gehitzeko gai izan zela, 1975ean behin betiko itxi zen arte.

M WARD – A Wasteland Companion



Cd
(Merge)
12 abesti

Ez da zaila iragartzea Matthew Warden azken lana urteko lani kononen artean lehenengotakoa izango dela, harrera ona izan baitu eta izenburu hau musikarien arteko elkarriketetan askotan agertzen baita. Ziurrenik merezi izango du, eta ez bakarrik Wardek hamarkada luze bat daramalako talentu handia erakusten. Egia esan, disko bikaina da, koherentea, abestiek zerbait tonalitate izan arren. Artistak leku berean geratzeko eta eskema berdina errepikatzen bakarrik balio ez duela erakusten du, ibilbide emankorra izan arren.

Artista She & Him –Zoey Deschanel lagunduta–, Howe Gelb eta Arizona Amp & Alternator eta Monsters of Folk taldeekin aritu da besteak beste, eta guztiei mesede egin die. Baina nire ustez bakarka egindako diskoetan aurkitzen da Warden alderdirik onena, eta zehatz esanda, disko pare batean, Transistor Radio eta Post-War. Lan berria ez dago horien mailan, baina distantzia ez da hain handia, eta hemen dagoena nahikoa da.

Adibidez, hasteko, temen sekuentzia bikaina da, eta tema simple eta zuzenenean tema arriskatuenean tonua lortzen dute, eta erabat sinesten da abesti guztiak ez direla erraz agortzen, askotan entzun behar direla dimentsio osoa antzeman ahal izateko.

Wardek zuzen abesten du soinu epela erabiliz, eta berdin-berdin harrapatzen ditu tradizionalistak zein modernoak. Rock intimista egin zuen hasieran, baina denborarekin kontrako izatera iritsi da, eta jende gero eta gehiago konbentzitzen du. Horren erakusgarri da rock independentearen proposamenetarantz bideratzen udan Azkena Rock Festivalen egindako kontzertu bikaina –zoritxarrez, ni bertan egon ez nintzenez, konfiantzazko jendearen diagnostikoa sinetsi behar dut...–. Disko berriari esker, pauso gehiago eta ikusgarriagoak emango ditu. Ea denborak eta arrakastak ez duten artistaren mezu artistikoaren funtsezko mezua desaktibatzen –Wilcorekin gertatu zen bezala!.



2012ko KULTUR AGENDA: URRIA ETA AZAROA

Oporrak ahaztuta eta egunerokotasunari berriz helduta, Bizkaiko hiriburuaren kultur aisialdiaren eskaintza berriak laburtuko ditugu, horien artean baten bat interesatuko zaizuelakoan:

OPERA ETA ZARZUELA

• **“AMADEU”**, Albert Boadellak Amadeo Vives musikagilearen deskribapena egiten du, zarzuela erabilita. Bartzelonako egunkari batek rock gogorraren zalea den kazetari gazte bati enkargua ematen dio: Amadeo Vives zarzuela egile handiaren inguruan artikulu bat idatzi beharko du. Ikerketa horretan kazetariak berarentzat ezezaguna zen musikagilearen bizitza eta lana asmatzen saiatu beharko da. Argudioa erdi dramatikoa, erdi umorezkoa da eta zarzuela askoren pasarteak ageriko dira (Doña Francisquita, Bohemios, Maruja edo La Generala), baita musikagilearen gaztaroan konposatutako abesti eta kopia erotikoak.

Urriaren 11tik 13ra, Arriaga Antzokian.

• **“UN GIORNO DI REGNO”**, Giuseppe Verdiarena. Parte hartuko dute: Dalibor Jenis, Paolo Bordogna, Irina Lungu, Silvia Vázquez, José Manuel Zapata, David Soar, Eduardo Ituarte eta Juan José Puente. Bilbao Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Opera Korua.

Urriaren 27tik azaroaren 5era, Euskalduna Jauregian.

• **“KROL ROGER”**, Farol Szymanowskirena. Parte hartuko dute: Mariusz Kwiecien, Iano Tamar, José Luis Sola, Francisco Vas, Felipe Bou eta Iryna Zhytynska. Euskadiko Orkestra Sinfonikoa eta Bilboko Opera Korua.

Azaroaren 24tik abenduaren 3ra, Euskalduna Jauregian.



ANTZERKIA

• **“OUA UMPLUTE, el funeral”**, lagun talde zingaro batek ikuslegoa gonbidatzen du Dimitri aitariaren hileta ospatzera; gertakizun arina baina nahaspila ederra sortaraziko duena. Pertsonaia harrigarriak, trebetasun musikala eta ikuslegoarekiko hartu-emanak direla eta, hileta ahaztezinazko jaia bihurtuko da. Urriaren 6an eta 7an, Arteria Campos Elíseos Antzokian.

• **“El hijo del acordeonista”**, David, hiltzear dago Kaliforniako arrantxoan zoriontsu bizi ondoren. Josefaren bisita du, lehenaldiko kontuak argitzeko. Soinujolearen semeak lehenaldiko mamuak eta ameslariak uxatu beharko ditu. Euskaraz eta gaztelaniaz prestatutako produkzioa da eta horretarako hainbat antzoki batu dira: Bilboko Arriaga, Gazteizko Principal eta Donostiako Victoria Eugenia; horietara Tanttaka Teatroa ekoizlea bildu da. Urriaren 18tik 21era, Arriaga Antzokian.

• **“La loba”**, Lilian Hermanen lanaren egokitzapena, Estatu Batuetako literatura dramatiakoaren klasiko bat da. Egileak gerra zibilaren ostean kotoi industriaren bidez aberastu zi-

ren espekulatuzaileen askogura neurrigabea eta eskrupulu falta gogor kritikatzan ditu. Nuria Espert antzezlearekin. Urriaren 25etik 28ra, Arriaga Antzokian.

• **“GOENKALE”**, Pausota eta Glu Glu taldeek ETBko saio mitikoa taularatuko dute. Azaroaren 5etik 7ra, Arriaga Antzokian.

• **“Una noche con el Brujo”**. Azaroaren 15etik 18ra, Euskalduna Jauregian.

• **“HAMLET”**, Shakespeareren erabateko klasikoa Arriaga Antzokira dator berriro ere. Oraingoan Will Keen zuzendariak lanaren bertsio berri eta bizia eskainiko digu. Alberto San Juan antzezlearekin. Azaroaren 17an eta 18an, Arriaga Antzokian.

• **“Don Juan Tenorio”**, Zorrillaren lan klasikoa oraingoan 70ko hamarkadan kokatuko da, gure artean, protagonistaren asaldatze gogoa ulertzeko. Azaroaren 22tik 25era, Arteria Campos Elíseos Antzokian.





DANTZA

• **“Ballet de Flamenco Sara Baras: La Pepa”**, dantzari handiak flamenko lan berria du eta bertan Espainiako lehen konstituzioaren inguruko uneak eta gorabeherak berpizten dira: gerraren izua, bertako lurraldearen edertasuna, itxaropena, poztasuna, bizinahia eta askatasun grina.

Urriaren 3tik 7ra, Arriaga Antzokian.

• **“Asociación Ballets Olaeta: M eme M”**, lan honek euskal mitologiari errepasoa ematen dio, emakumearen garrantzia azpimarratuz.

KABARETA

• **“CRAZY HORSE: FOREVER CRAZY”**, hamar antzezle zoragarri dituen ordu t’erdiko saioa, pikardia harrigarriaz beterik. Forever Crazyk Parisko kabaret mitikoaren ezaugarriak errespetatzen ditu eta, aldi berean, show klasikoari moderotasun, umore eta sofistikazio ukituak ematen dizkio, Philippe Decouflé koreografo frantsesaren asmakizunekin.

Azaroaren 9tik 17ra, Arteria Campos Elíseos Antzokian.

HAURRENTZAKO

• **“El principito”**, Antoine de Saint-Exupéryren ipuin famatua antzerki musikalaren bidez kontatuta datorkigu, baina jatorrizko testuari erabat errespetatuta. Musika berria da, umeen korua dago eta eszenatokia imajinazioz beterik dago. Hori dela eta, familia osoa joateko lana da: meek gauzak sakontasunez ikusten ikasiko dute eta helduek berriro umeak izaten ikasiko dute.

Azaroaren 13an eta 14an, Arteria Campos Elíseos Antzokian.

• **“La Pequeña Flauta Mágica”**, Opera Divertimento taldea berriz datorkigu, oraingoan La Pequeña Flauta Mágica lanarekin; lan hori Mozarten operaren egokitzapena da, hain zuzen ere, haurrentzako egina.

Urriaren 28an, Arteria Campos Elíseos Antzokian.

• **“OPERA TXIKI: PEDRO Y EL LOBO”**, narratzaileak eta txo-txongilo jostalari batzuek Pedroren istorioa kontatuko dute: Pedro umetxo bat da baina ausardiaz otsoa ehizatzea lortuko du.

Azaroaren 10etik 12ra, Arriaga Antzokian.

Azaroaren 2an eta 3an, Arriaga Antzokian.

• **“Grand Gala Tchaikovsky”**, Tchaikovskyren ballet handien pasarte bikainenak agertzen dira (La bella durmiente, Cascanueces, El lago de los cisnes). Sergei Radchenkoren Russian National Ballet izeneko lehengo aldiz aurkeztzen da Espainian koreografia harrigarriekin. Sergei Radchenko Bolshoiren dantzari handia eta koreografoa da.

Azaroaren 2an eta 3an, Arteria Campos Elíseos Antzokian.

MUSIKA KLASIKOA

• **Bilbao Orkestra Sinfonikoaren** kontzertua. Urriaren 18an eta 19an, eta azaroaren 8an eta 9an, eta 22an eta 23an, Euskalduna Jauregian.

• **Isabel Rey** abeslariaren kontzertua; Valentziako sopranoak Alejandro Zabala piano-jotzailearen laguntza izango du. Urriaren 22an, Arriaga Antzokian.

• **VIVA VERDI**, Tettamanti Producciones taldeak, Italiako musikagile apartaren 220. urteurrena dela eta, “Viva Verdi” lana eskaintzen du. Kontzertu bat balitz bezala, konpositorearen operetatik ariak, duoak eta koroak joko dira.

• **Joaquín Achúcarroren** kontzertua; bertan, Debussy, Chopin eta Schumann musikagileen lanak joko dira. Azaroaren 4an, Arriaga Antzokian.

• **Ainhoa Artetaren** kontzertua, Rubén Fernández Aguirre piano-jotzailearekin. Azaroaren 8an, Arriaga Antzokian.

• **Montserrat Caballé eta Monserrat Martí** abeslariaren kontzertua. Azaroaren 19an, Arriaga Antzokian.

MUSIKA MODERNOA

• **Manolo García** abeslariaren kontzertua: *Las canciones de los días intactos*. Urriaren 11n, Euskalduna Jauregian.

• **Wilco** taldearen emanaldia. Urriaren 14an, Euskalduna Jauregian

• **Raphael** abeslariaren kontzertua: *Lo mejor de mi vida*. Azaroaren 25ean, Arriaga Antzokian.

• **Benito Lertxundi** abeslariaren kontzertua. Azaroaren 25ean, Euskalduna Jauregian.

Aldizkariko Kultur Eranskinak espazio ireki eta anizkuna izan nahi du. Edozein kritika, iradokizun eta ekarpen eskertuko da: kultura@icasv-bilbao.com

El Suplemento Cultural de *El Boletín* pretende ser un espacio abierto y plural. Cualquier crítica, sugerencia y aportación es bienvenida: kultura@icasv-bilbao.com

Especialistas en seguros de
Responsabilidad Civil



**Profesional
General**

Directores y Administradores D&O

www.wrblondon.com/spain

**Bizkaia
Jaurerriko
Abokatuen
Bazkun
Ohoretsua**



**Ilustre
Colegio de
Abogados
del Señorío
de Vizcaya**